

GIB eta HIESdunentzat herritar orok dituen eskubideak eskatu dituzte

III. Topaketek berrogei elkarte bildu dituzte Bermeon egun hauetan

GIB eta HIESarekin bizi diren lagunentzat herritar orok dituen eskubide eta bizi-baldintza berberak eskatu dituzte, egunotan Bermeon egiten ari diren HIESdunen eta autolaguntza taldeen III. Topaketetan. Josu Unanue T-4 taldeko lehendakariaren hitzetan, «duintasunez bizitzea besterik ez dugu eskatzen».

G. AGIRRE / BILBO

Atzo hasi eta bihar arte iraungo dute GIB eta HIESarekin bizi diren lagunen eta laguntza taldeen Espainiako III. Topaketek. Bermeoko eskola publikoetan egiten ari diren jardunaldi hauetan Espainia zein nazioarte mailako 40 elkarte hartzen dute parte, guztira 150 lagun bilduz.

«Laguntza ematen diogu elkarrari» lemapean egiten ari diren topaketetako partehartzaileek barne eztabaidak egingo dituzte, bost lan taldetan banatuta. Tailer hauetan emakumearen, laguntza taldeen eta HIESaren kontrako Espainiako Batasunaren gaineko gaiak jorratuko dituzte. Era berean, jardunaldiek bi berrikuntza izango dituzte: gazteei eta gutxiengo etniko eta migrazioei buruzko tailer bana.

Lan talde bakoitzeko ordezkariak HIESak kaltetutako kolektiboak dituzten arazoak azaldu zituzten. Horrela, gazteei buruzko tailerrean, proiektuak trukatu eta Espainia osoko gazteei zuzendutako plangintza landu nahi dute. Izan ere, tailerreko arduradunak nabarmendu zuenez, 14 urtetik gorako gazteen artean GIB eta HIES kasuen igoera «oso adierazgarria da eta kasua-



Josu Unanue, T-4ko lehendakaria, eta Patrick Levy, Israelgo HIESaren aurkako batzordeburua. M. RAMIREZ

litate estatistiko hutsa ez baizik joera bat da».

Emakumea eta HIESari buruzko tailerra berria ez bada ere —lehenbiziko topaketetan martxan jarri baitzen—, gaur egun ere ezinbestekoa da. Arduradunak azaldu zuenez, «emakumeen seropositibotasunari garrantzi gutxi ematen zaio eta horrek ondorio bikoitza du. Batetik, GIB-dun emakumeentzako zerbitzuei buruzko informazioerik eza eta, bestetik, emakumea eta HIESari buruzko ikerketen atzerapena».

Hori dela eta, tailer honetan Espainia zein nazioarteko HIESaren kontrako elkarteek esperientziak trukatu eta etorkizunari begira estrategia berriak landu nahi dituzte.

Gutxiengo etniko eta migrazioari buruzko lan taldeak etorkinek HIESaren proba egin be-

har izatea eta etorkin seropositiboek asilo politikoa ukatzea aztertuko dute, besteak beste. Ildo honetan, T-4 taldeko ordezkari batek Espainiako instituzioen «hipokrisia» kritikatu eta Arartekoaren aurrean salatzeak asmoa iragarri zuen.

Patrick Levy Israelgo HIESaren aurkako batzordeko buru eta Eurocason Europako hegoaldeko herrialdeen ordezkariak salatu zuenez, Europako gobernuek «ateak ixten» dizkiete gaixotasun hau duten etorkinei. «Europar GIB duten pertsonak bi aldiz hiltzen dira», azpimarkatu zuen, «fisikoki hiltzen dira gaixotasuna sendagaitza delako. Eta gizartean ere hiltzen dira gobernu eta pertsona gehiegik ateak ixten dizkietelako».

Bestalde, Europa osoan eza gutzen diren kasuen % 62 he-

goaldeko herrialdeetan kokatzen direla jakinarazi zuen, bereziki Espainia eta Italian.

Jaime Tovar-ek, gazteleraz mintzo diren atzerritarrentzako Berlingo laguntza proiektuko ordezkariak, HIESaren kontrako kanpainetan kulturen arteko ezberdintasunak aintzat hartu beharra aldarrikatu zuen. Izan ere, berak azaldu zuenez, «HIESaz hitz egitea sexuaz mintzatzea da. Baina ez da gauza bera sexuaz turkiar batekin edo aleman batekin hitz egitea».

Azkenik, HIESaren kontrako Espainiako Batasunari buruzko tailerrean Batasuna osatzen duten 35 taldeen arteko harremanak sendotu eta proiektu bateratuak landuko dituzte.

Elkarretaratzea antolatu du MAIAk proba nuklearrak salatzeke

L. F. / BAIONA

Militarismoaren Aurka Intsumisioaren Alde (MAIA) taldeak elkarretaratzea antolatu du bihar arratsalderako Angeluko Sables d'Or hondartzan Frantziaren proba nuklearrak salatzeke asmoz. Talde antimilitaristak hitzordua finkatu du turismo bulegoaren aitzinean arratsaldeko hiruretan eta sorpresa bat izanen dela hitz eman du xehetasunak argitu gabe.

Entseiu nuklearrak berri egiteko erabakia goraki salatu du MAIAk, «Gobernu frantsesaren mesprezu eta erokeriaren adierazpena» dela azpimarratuz.

Elkartasun osoa adierazi die politika honen kontra borrokatzen diren gizon eta emazteei eta deia luzatu du antolatuko diren ekintza guztietan jendeak parte har dezan.

Salatzeke agiriak ezik, Frantziako Gobernuaren erabakiak ihardokitze gutxi izan ditu Ipar Euskal Herrian. Alabaina, euskal kostaldeko 200 surfleri bildu ziren dagoeneko Angeluko hondartzan duela bi aste, Gobernuaren erabakia goraki eta fermuki salatzeke, eta aldi berean oroitzutsasoa babestu beharreko ondarea dela.

Bigarren manifestaldia ere egingen du MAIA taldeak, bereziki azpimarratuz Frantziako Armada^{ak} auzi honetan duen erantzukizuna.

Ehun urtez euskal burdinbideetan zehar

N. ARANA / ZARAUTZ

Duela ehun urte, 1885eko apirilaren 9an, ordura arte izandako isolamendua hautsiko zuen ibilgailu berria sartu zen Zarautzen, eta berari esker Donostiarekin behin-behineko loturari eutsi ahal izan zitzaion. Egun, erosketetara zein arratsalde batez paseatzera doanak ezingo luke pentsa, gure birraiton-amonentzat Donostiara bidaiatzea pentsaezina zela. Izan ere, trenbideak mugak hautsi zituen eta Zarautz-Donostia bideko herrietako bizitzak aldaketa izugarria izan zuen. 1854an Baionan lehendabiziko lurrin-lokomotorea agertu zenetik gaur egun arte, trenbideak sekulako garrantzia

izan du Euskal Herriko bizitza sozial eta ekonomikoa uztartzen. Zarauzko tren mendedunak, beraz, merezi zuen omenaldi ofiziala jaso zuen atzo, baita urte urte eta ordu luzez tren zaharren egurrezko eserleku gogor horiek ezagutu dituzten Gipuzkoa eta Bizkaiko herritarrek ere.

Atzo goizeko 11.30etan eta herritarren jakinminaren aurrean, mendeurrenaren omenaldi ekitaldiari ekin zioten Zarauzko Imanol Murua alkatea eta Jose Antonio Maturana Gasteizko Garraio eta Herrilan sailburua bertan zirela. Mendeurrenaren plakari estalia kendu ondoren, Zarauzko trenbideko langile jubilatuen omendua zituzten; bakoitzari oroigarri bana eman zioten

eta Juan Olaizola Elordik idatzitako 'Zarauztik Donostiarako Trenbidearen I. Mendeurrenaren' liburua aurkeztu zuten. Eguerdiko 12.20an, duela ehun urte egin zen moduan, museoko tren txikiaren lurrunezko motoreak piztu zuten eta geltoki zaharreko burdinbideetan zehar martxan jarri zen. Antzina bezala, kazetari eta gonbidatuak bertan eseri ziren Donostiarako bidaia bereziari ekiteko asmoz. Politikarientzat ere bidaia mamitsua izan zen hura. Izan ere, Zarautz eta Gasteizko administrazioek, Zarauzko hirigintza beharren araberako trenbidearen lur eremuen hirigintza ordenamendu berria eta trenbidearen pasaguneen aldaketa hitzartu dute.



LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

IRAGARKIA

OBRAK HARTZEKO LEHIAKETA

LANA: Elias Salaberria eta Jaizkibel hiribideetako espaloiak egitea.

ENKANTEAN HASTEKO KOPURUA: 15.000.000 pta.

LANAK EGITEKO EPEA: 2 Hilabete.

FIANTZA: Behin behinekorik ez dago. Behin betikoa: 600.000 pta.

PROIEKTUA ETA BALDINTZA PLEGUA: Sigraf. S.L. enpresan. Helbidea: 103. poligonoa (Sagasti) Industrialdeko Zerbitzuetarako Eraikinean. LEZO.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO: TOKIA: Udaletxeko errejistroa.

ORDUA: 9.00etatik 13.30etara, astelehenean ostiralera.

AZKENEKO EGUNA: irailaren 11, astelehena.

ANUNCIO

ANUNCIO DE CONCURSO DE OBRAS

OBJETO: Construcción de acera de avenidas Elias Salaberria y Jaizkibel.

TIPO DE LICITACION: 15.000.000 ptas.

PLAZO DE EJECUCION: 2 Meses.

FIANZAS: No se establece fianza provisional.

Fianza definitiva: 600.000 ptas.

PROYECTO Y PLIEGO DE CONDICIONES: En Sigraf. S.L. sito en el edificio Servicios de Industrialdea, Poligono 103 (Sagasti) LEZO.

PRESENTACION DE SOLICITUDES: LUGAR: Registro del Ayuntamiento.

HORA: de 9.00 a 13.30. De lunes a viernes

ULTIMO DIA: 11 de septiembre, lunes.